

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ILE-APAINKETAKO AHOLKULARITZA	Iraupena	60
Kodea	MF0793_3		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Ile-apainketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ile-apainketa tekniko-artistikoa	Maila	3
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza	Kolorea ile-apainketan (zeharkakoa)	Iraupena	90
	Ilea moztea (zeharkakoa)		90
	Bizarraren eta bibotearen zainketa (zeharkakoa)		30
	Ile-apaindegietako eta ikus-entzunezko produkzio eta produkzio eszenikoetako lanen protokolo teknikoak		40
	Ile-apaindegietan eta ikus-entzunezko produkzio eta produkzio eszenikoetan ilearen forma aldatzea		70
	Irudi pertsonaleko enpresen zuzendaritza eta kudeaketa (zeharkakoa)		60
	Ile-apainketa tekniko-artistikoko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		160

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0793_3: Bezeroei irudi pertsonalari buruzko aholkuak ematea, buruko ilearen eta aurpegiko ilearen zaintza eta transformazio estetikoaren bidez.

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA
Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Eredu estetikoari buruzko informazioa lortzeko dokumentu-iturri desberdinak aukeratzea, orrazkerari eta aurpegiko ile-elementuen aldaketari buruz aholkuak emateko.

EI1.1 Orrazkeren, orrazkera bilduen eta haien osagarrien ezaugarriari eta aurpegiko ile-elementuen —bizarra, bibotea, ile-zangoak— aldaketari buruzko historiako garai desberdinetako informazioa lortzeko egokienak diren dokumentu-iturriak azaltzea.

EI1.2 Bezero, pertsonaia eta/edo enpresa edo erakunde baten irudia aztertzeke behar den informazioa eta dokumentazioa antolatzea, haien ezaugarri fisikoak, sozialak, lanekoak edo beste batzuk kontuan hartuz.

EI1.3 Egungo edertasun-kanonek zehazten dituzten diseinuko elementuak identifikatzea, koloreari, formari, bolumenari, testurari, luzerari eta beste zenbait alderdiri dagozkienak.

EI1.4 Orrazkerak sexuaren, adinaren, ekitaldi sozialen eta abarren arabera sailkatzea.

EI1.5 Osagarriak, apaingarriak, ile-eranskina, kapelak eta abar une historikoaren edo ekitaldi sozialen arabera sailkatzea.

EI1.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, gidoi baten bidez edo beste baliabide batzuen bidez, ikus-entzunezko produkzio batean edo produkzio eszeniko batean parte hartzen duten pertsonaiak identifikatzea, eta orrazkerari, osagarriari, apaingarriari eta bestelakoari buruzko bozetoak egitea, hautatutako proposamena diseinatzeke.

A2: Elkarrizketa- eta behaketa-teknikak eta bestelakoak aplikatzea, ile-apaindegiko edo ikus-entzunezko bitartekoetako edo bitarteko eszenikoetako bezeroaren irudiari buruzko informazioa lortzeko.

EI2.1 Bezeroari harrera egitean eta arreta ematean, profesionalak eman behar duen irudia deskribatzea.

EI2.2 Higiene- eta segurtasun-arauak errespetatuz bezeroen eskaerari eta itxaropenei buruzko informazioa lortzeko bezeroekin izaten diren elkarrizketen kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Jarduera-irizpideak ezartzea zerbitzuaren fase bakoitzerako: agurra-harrera, balorazioa, proposamena-akordioa, egitea-gainbegiratzea, amaitzea-agurtzea eta prozesuaren ebaluazioa.
- Bezeroari behatzea, eta haren ezaugarriak identifikatzean, haren jarreraren eta portaeraren arabera.
- Bezeroaren eskaerari eta itxaropenei buruzko informazioa, produktu kosmetikoak eta ile-apainketako zerbitzuak erabiltzeko ohiturei buruzko informazioa eta estiloa aldatzea bultzatzen duten egoerari buruzko informazioa lortzera bideratutako galderak egitea.
- Bezeroaren ohiturei, zaletasunei, zainketa pertsonalari, giro sozial eta kulturalari, laneko giroari eta abarri buruzko datuak lortzea.
- Lortutako informazioa bezeroaren fitxa teknikoan jasotzea.

EI2.3 Argudio- eta aurkezpen-ildo desberdinak azaltzea bezero-mota desberdinentzat, egin beharreko aldaketa-proposamenen eta prozesu teknikoaren arabera.

EI2.4 Transformazio estetikoak egiteko aukeran eragin dezaketen edo hura baldintzatu dezaketen bezeroaren buruko ilearen ezaugarriak deskribatzea —ilearen alterazioak, jasotako tratamenduak, ile-lerroa, kalitatea, mota, luzera, kolorea—, baita egin beharreko aldaketa-proposamenean kontuan izan beharreko alderdi guztiak ere.

EI2.5 Aurpegi-obalo motak, proportzioak, buru-forma, profila, lepoa, begien kolorea, larruazal-kolorea eta irudi pertsonala aldatzeko edo hobetzeko proposamenean eragin dezaketen bezeroaren fisonomiako beste alderdi batzuk identifikatzea.

EI2.6 Ikus-entzunezko bitarteko edo bitarteko eszenikoetako zuzendari artistiko, diseinatzaile eta beste batzuekiko elkarrizketen kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta izanik, hauei buruzko informazioa lortzeko galderak egitea: antzetzuko den pertsonaia, hautatutako aktorea, muga ekonomikoak, iraupena, ingurune kondizioak eta erabilgarri dauden ikus-entzunezko bitarteko eta bitarteko eszeniko teknikoak.

EI2.7 Hainbat baliabidetatik —argazkiak, digitalak, zuzeneko behaketa, elkarrizketa eta beste batzuk— lortutako informazioarekin dokumentazio teknikoak prestatzea hauek zehaztuz:

- Ezaugarri pertsonalak.
- Proposatutako irudi-aldaketan eragina duten alderdi sozialak.
- Aldatu edo zuzendu beharreko alderdiak.
- Orrazkeraren edo aldaketaren estiloa, bizarraren, bibotearen edo ile-zangoen konponketa eta/edo osaera.

EI2.8 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, orrazkera-estiloak aldatzeko aholkuak ematekoetan:

- Lehendik dauden oinarriko prototipoetan bezero-mota bereiztea, eta pertsonaren estilo orokorra identifikatzea haren irudi osoari zuzenean behatuz.
- Ile-mota, kolorea, ile urdinen ehunekoa, jaiotze-lerroak, dentsitatea eta ileari buruzko beste faktore garrantzitsu batzuk sailkatzea.
- Aurpegi-motak sailkatzea, aurpegiaren geometriaren, lerroen eta proportzioen arabera.
- Buru-, kopeta-, profil- eta lepo-motak eta haiek orrazkera-estilo desberdinetan eragin ditzaketen efektuak identifikatzea eta eskematizatzea.
- Ile-kolorearen eta larruazal-tonu eta begi-kolore desberdinen arteko harmonia zehazteko irizpideak ezartzea.
- Diseinuko elementuek bezeroaren adinarekin eta sexuarekin lotuta duten eragina zehazteko irizpideak ezartzea.

A3: Orrazkerak edo orrazkera bilduak diseinatzeko teknikak aplikatzea, ezarritako helburuen edo aukeratutako aldaketa-proposamenaren arabera.

EI3.1 Historiako garai garrantzitsuenetako orrazkeren eta orrazkera bilduen ezaugarriak deskribatzea.

EI3.2 Kasu praktiko batean, egin beharreko orrazkera edo orrazkera bilduei eta behar diren apaingarriei, ileordeei eta osagarriei buruzko dokumentazio historikoa edo fikzioskoa aukeratzea, kontsultatzea.

EI3.3 Adin desberdinetako bezeroen orrazkeren eta orrazkera bilduen diseinuen bereizgarri diren elementuak —forma, bolumena, kolorea eta testurari buruzkoak— definitzea.

EI3.4 Diseinuaren ezaugarriak zehaztea, bezeroaren balorazioan jasotako ondorioak eta estiloak eta joerak kontuan hartuta.

EI3.5 Obalo-mota eta aurpegiko elementu desberdinetako orrazkeren eta orrazkera bilduen bozetoak egitea aurpegiaren morfologia kontuan hartuta, eta orrazkeraren, orrazkera bilduaren, bizarraren, bibotearen eta ile-zangoen bidez egin daitezkeen zuzenketak egitea, baliabide informatikoen, ikus-entzunezko baliabideen eta bestelako laguntzaz.

EI3.6 Fitxa tekniko batean, bezeroaren ezaugarriei buruzko datu guztiak erregistratzea, diseinua egiteko behar diren elementuak ebaluatzea.

EI3.7 Obalo-moten zuzenketak jasotzen dituzten aurpegiko ile-elementuen hainbat diseinutako bozetoak egitea, luzera, bolumena, kolorea, pisua eta forma erabiliz eta itsaste-puntuak, osagarriak, apaingarriak eta bestelakoak zehaztuz.

EI3.8 Bitarteko desberdinetarako orrazkerak egitean —argazkia, telebista, zinema, antzerkia, dantza eta ibiltokia, adibidez— kontuan hartu behar diren alderdi teknikoak identifikatzea, eta bozetoan nabarmentzea.

EI3.9 Historiako garai desberdinetako orrazkeren eta orrazkera bilduen bereizgarri diren diseinuko elementuekin bozetoak egitea, bai emakumezkoenak, bai gizonezkoenak eta adin eta klase sozial desberdinetakoak.

A4: Ilea, orrazkera, orrazkera bildua eta aurpegiko ile-elementuak transformatzeko proposamenak egitea, eta aukeratutako alderdi teknikoak eta estetikoak argumentatzea.

EI4.1 Orrazkera-estiloek aurpegiaren eta gorputzaren ezaugarri fisikoetan nola eragiten duten azaltzea.

EI4.2 Proposamen tekniko tipo batek zer eduki behar duen adieraztea.

EI4.3 Bezero-mota bakoitzaren eta askotariko bitartekoen (zinema, telebista, ikuskizunak eta enpresak) ezaugarri espezifikoak identifikatzea, proposamen teknikoak egokitzea.

EI4.4 Ilean itxura aldatzeko proposamena aurkeztean argudio-ildoak definitzeko irizpideak azaltzea, bezero-motaren arabera.

EI4.5 Proposamena aurkezteko erabil daitezkeen material bisualak identifikatzea: estilo-albuma, bozetoak, programa informatiko espezifikoak edo beste batzuk.

EI4.6 Proposamena bezeroari edo arduradunari azaltzean erabili behar diren hizkuntza-gaitasunak eta komunikazio-trebetasunak deskribatzea.

EI4.7 Proposamen teknikoak egiteko eta ustezko bezeroei —adin eta sexu desberdinetakoei— azaltzeko kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala definituak izanik:

- Egin beharreko aldaketa-mota ezartzea, eta azpimarratutako diren alderdiak adieraztea.
- Orrazkera-proposamenak egitea kasu bakoitzean egokiak diren baliabide teknikoak edo teknologia berriak erabiliz.
- Proposamena lortzeko egin behar diren ile-transformazioko prozesu teknikoak deskribatzea, eta dagokien lan-fitxan jasotzea.

- Bezeroari behar bezala dokumentatuta aurkeztuko zaion proposamenaren diseinua egitea, bezeroaren, produkzioko, moda-desfileko eta abarreko zuzendari teknikoaren edo arduradunaren itxaropenak, eskaerak eta beharrak bateratuta.
- Laguntza-materiala erabili beharreko bitartekoen arabera aukeratzea eta erabiltzea.
- Ustezko bezeroari azaltzea haren irudi pertsonalean proposatutako aldaketek duten ondorioa eta aldaketak eskatzen duen zaintza eta mantentze-neurriak.
- Bezeroari edo enpresako edo ikus-entzunezko produkzioko edo produkzio eszenikoko arduradunari haren datuen konfidentzialtasunari, jarduera-egutegiari eta aurrekontuari buruzko informazioa ematea, eta sinatzea eskatzea, prozesua gauzatzeko.

E14.8 Ezaugarriak behar bezala definituta dauzkaten kasu praktikoetan, estilo desberdinetako orrazkeren eta orrazkera bilduen bozetoak egitea, ordenagailuz lagundutako marrazketa-teknikak erabiltzea.

A5: Zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko irizpideak eta parametroak aplikatzea, eta emaitzak eta aurreikusitako emaitzak lortzeko egin beharreko ekintzak aztertzea.

E15.1 Emandako zerbitzuaren kalitatea zehazteko ebaluatu behar diren alderdirik garrantzitsuenak zein diren identifikatzea.

E15.2 Bezeroaren gogobetetze-maila —lortutako azken emaitzari buruzkoa zein jasotako arreta pertsonalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galdera tipoak egitea.

E15.3 Ematen den zerbitzuan, prozesuaren hainbat fasetan, hutsuneak eragin ditzaketen kausa teknikoak eta bezeroarentzako arretakoak zerrondatzea.

E15.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan modeloekin ematen den zerbitzua ebaluatzeko kasu praktiko batean:

- Emandako zerbitzuen azken emaitza eta ustezko bezeroaren itxaropenak alderatzea.
- Aurreikusitako emaitzekiko gertatu diren desbideratzeak detektatzea, eta desbideratzeen kausa teknikoak eta arretakoak arrazoitzea.
- Zerbitzua emateko prozesua eskematizatzea, eta detektatutako anomaliak haiek gertatutako fasearekin lotzea.
- Lortutako emaitzak espero ziren emaitzetara egokitzeko neurriak proposatzea.
- Prozesu hauetako kexak ebazteko teknikak aplikatzea.

E15.5 Ustezko bezeroari aholkuak ematea lortutako emaitzak mantentzeko eta optimizatzeko aplikatu behar dituen zaintza, teknika eta kosmetikoei buruz.

E15.6 Produktu kosmetikoak saltzeko proposamenak egitea, orrazkera-estilo berrira edo egindako beste edozein aldaketara egokituta.

Edukiak

1. Orrazkeren, orrazkera bilduen eta aurpegiko ile-elementuen diseinuari aplikatutako informazioa eta dokumentazioa.

- Orrazkerak egiteko dokumentu-iturriak: historiakoak, modakoak eta sozialak. Bibliografikoak, informatikoak, Internetekoak eta bestelakoak.
- Informazioa bilatzeko teknikak.
- Eredu estetikoei —klasikoa, barrokoa, modernoa, minimalista...—buruzko informazioa.
- Ile-mozketen estiloak, kolorazioak, orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak aztertzeko informazioa.
- Estilo berritzaileei buruzko informazioa.
- Dokumentazio teknikoa prestatzea. Proposamenak. Txostenak. Fitxak.

2 Ile-apaindegiko, ikus-entzunezko bitartekoetako eta produkzio eszenikoetako bezeroaren beharren/eskaeren azterketa.

- Profesionalaren irudia.
 - Janzkera.
 - Profesionalaren portaera.
 - Kortesia-arau orokorrak.
- Elkarriketak egiteko teknikak. Bezeroekiko elkarriketak. Moda-diseinatzaile, ikus-entzunezko bitartekoetako edo bitarteko eszenikoetako direktore artistiko eta bestelakoekiko elkarriketak
- Behaketa-metodoak: zuzeneko behaketa, irudi analogikoen/digitalen behaketa.
- Ile-apaindegietako bezero-motak:
 - Pertsonalitate eta estiloaren arabera.
 - Ile-apaindegira etortzeko duten maiztasunaren arabera.
- Ikus-entzunezko bitartekoetako eta produkzio eszenikoetako bezero-motak.
- Ile-apaindegiko aholkularitzako eta aurpegiko ilea txukuntzeko eta egokitzeko prozesu batean, bezeroari arreta emateko faseak.
 - Harrera egitea.
 - Datuen erregistroa eta bezeroarekiko komunikazioa.
 - Egitea-gainbegiratzea.
 - Agurra.
 - Prozesuaren ebaluazioa.
- Ikus-entzunezko bitartekoen eta produkzio eszenikoen ezaugarri teknikoak eta haiek orrazkeran duten eragina.
 - Argiztapena.

- Planoak.
- Kanpoaldeak eta barrualdeak.
- Beste batzuk.

3 Bezeroaren azterketa osoa: giza gorputzaren morfologia, ilearen ezaugarriak eta elementu estetikoak.

- Azterketako protokolo teknikoaren egokitzapena.
- Aurpegiaren morfologia eta aurpegierak: irudikapen grafikoak. Obalo-motak. Kopeta-motak.
- Buruaren, lepoaren eta profilaren morfologia. Motak.
- Aurpegian edo gorputzean desproporzioak edo bestelako diskordantziak egonez gero orrazkerarekin egin daitezkeen zuzenketak. Adierazpen grafikoak.
- Pertsona-motak morfologiaren arabera.
- Ilean ezaugarrien eta gorputzaren morfologiaren arteko harmonia.
- Ilean eta buru-larruazalaren ezaugarrien eta egoeren azterketa.
 - Ilean alterazioak, jasotako tratamenduak, ile-lerroa, kolorea, ile urdinen kopurua eta beste batzuk.
 - Ile-motak, hauen arabera: irizpide antropologikoa, testura eta forma, emultsioa, lodiera, dentsitatea, iragazkortasuna eta beste batzuk.

4 Orrazkerak edo orrazkera bilduak diseinatzeko teknikak.

- Bezeroaren azterketa estetikoak eta orrazkera-diseinuak.
- Diseinuaren elementuak: lerroak, formak, bolumena, kolorea, testura...
- Diseinuan kontuan izan beharreko faktoreak:
 - Morfologia eta visagismoa.
 - Bezeroaren adina, sexua eta estiloa.
 - Ekitaldi sozial motak.
 - Ikus-entzunezko bitarteko desberdinak eta produkzio eszeniko desberdinak: argazkia, telebista, zinema, antzerkia, dantza...
 - Historiako garaiak.
 - Bozetoen garapena.
 - Ordenagailuz lagundutako diseinua.

5 Ilea transformatzeko proposamenen lanketa.

- Dokumentazio teknikoaren lantzea:
 - Bezeroaren fitxa.
 - Txostenak: profesionalak eta bideratzekoak.
 - Bozetoak.
 - Beste batzuk.
- Proposamenak egitea eta aurkeztea. Edukia. Argudio-ildoak.

6 Ilea-apaintzeko zerbitzuen kalitate-kontrola.

- Ilea-apaintzeko prozesuen kalitate-faktoreak.
- Emandako zerbitzuaren kalitatea neurtzeko parametroak.
- Behar bereziak dituzten bezeroentzako arreta.
- Bezeroaren gogobetetze-maila ebaluatzeko irizpideak.
- Zerbitzua ematean izandako desbideratzeak.
- Desbideratzeak zuzentzeko neurriak hartzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagapenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ilea-apaintze tekniko-artistikoa.